


HIRUHILEROKO KONTU EKONOMIKOEN AURRERAPENA (HKEA). III/2025

Euskal AEko BPG % 2,2 hazi da eta enplegua % 1,4, 2025eko hirugarren hiruhilekoan

Urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, hazkundera % 0,4koa izan da BPGren kasuan, eta % 0,2koa enpleguaren kasuan

Euskal AEko Barne Produktu Gordina (BPG) % 2,2 igo da 2025eko hirugarren hiruhilekoan aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Eustatek hiruhileko kontu ekonomikoaren aurrerapenean egindako zenbatespenen arabera. Urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, Euskal AEko BPG hazi egin da eta % 0,4an kokatzen da.

Aurrerapen hau egiteko unean eskura zegoen koiunturako informazio ekonomikoaren arabera, urteko hirugarren hiruhileko honetan ikusitako urte arteko hazkundera zerbitzuen sektorearen eta eraikuntzaren sektorearen bilakaeran oinarritzen da batez ere.



Enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokide gisa neurtuta, % 1,4 igo da urte artean, eta horrek 13.000 lanpostu baino gehiago sortzea ekarri du. Aurreko hiruhileko beraren aldean, zenbatetsitako hazkundera % 0,2koa da.

Datorren **abenduaren 3an**, Eustatek BPGren eta enpleguaren zenbatespen bereiziak argitaratuko ditu 2025eko hirugarren hiruhilekoko Hiruhileko Kontu Ekonomikoetan, Aurrerapen hau egiteko unean eskuragarri ez dagoen koiuntura-informazioa erantsi ondoren.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62